



(https://www8.smartadserver.com/click?

imgid=23204430&insid=8451562&pgid=1024018&ckid=9166697791543370771&uii=232318480129542863&acd=1550664417570&pubid=19&tmstp=5849334352&tgt=%24dt%3d1t%3b%2enbeita-da-bizkaiko-sagardoaren-enbaxadorea%2f&go=http%3a%2f%2fwww.iragarkilaburrak.eus)

Onintza Enbeita da Bizkaiko Sagardoaren enbaxadorea

(https://www8.smartadserver.com/click?

imgid=23204430&insid=8451562&pgid=1024018&ckid=9166697791543370771&uii=232318480129542863&acd=1550664417570&pubid=19&tmstp=5849334352&tgt=%24dt%3d1t%3b%2enbeita-da-bizkaiko-sagardoaren-enbaxadorea%2f&go=http%3a%2f%2fwww.iragarkilaburrak.eus)

📍 Muxika (https://busturialdea.hitza.eus/herriak/muxika/)

Kultura (https://busturialdea.hitza.eus/gaiak/kultura/)

Txotx denboraldiari hasiera eman dio bertsolari muxikarrak gaur goizean, Zornotzan. Sagarraren ekoizpena iazkoa baino txikiagoa izan den arren, horien kalitatea nabarmendu dute sagardogileek.

📅 2019 (https://busturialdea.hitza.eus/2019/01/23 (https://busturialdea.hitza.eus/2019/01/23 (https://busturialdea.hitza.eus/2019/01/23)

Ane Maruri Aransolo (https://busturialdea.hitza.eus/sinadurak/ane-maruri-aransolo/)

Bizkaiko Sagardo Denboraldiaren hasiera



Onintza Enbeita bertsolari muxikarra da aurtengo Bizkaiko Sagardoaren **enbaxadorea**. Karguaren lekukoa hartu eta bertso batez hasi du sagardo denboraldia Zornotzako Uxarte sagardotegian.

Bizkaiko sagardogileek esan dute beraientzat ohorea dela Enbeita aurtengo enbaxadorea izatea, baina Enbeitarentzat, ohorea berea da: "Bizkaiko Sagardogileen Elkartea aspalditik ezagutzen dut, askotan elkarlanean aritu gara, eta orain beraien enbaxadorea izatea ohorea da niretzat. Bertsolari moduan hazten ikusi naute, eta eurak ikusi ditut nik. Bizkaiko txapela irabazteko lan handia egin behar da, baina badirudi sagardoaren enbaxadore izateko sagardoa edatea nahikoa dela, eta lan erraza ipini didazuelakoan nago".



Guztira 11 ekoizle daude Bizkaian, bakarra Busturialdean: Muxikan *Kandi* sagardoa ekoizten dute.


Aurtengo sagarren **ekoizpena iazkoa baino txikiagoa** izan den arren, haien **kalitatea** nabarmendu dute sagardogileek; 108.000 litro ekoiztu dituzte aurtun, iaz baino 92.000 litro gutxiago. Aitor Intxaurreaga Bizkaiko Sagardogile Elkarteko presidentea 2017. urteko uztak aurtengoan eragin handia izan duela aitortu du: "2017. urteko uztak inoizko handiena izan zen, eta horrek 2018. urteko sagarrak markatu zituen. Negua ona izan da zuhaitzentzat, baina iazko maiatzeko eguraldiak ez zuen lagundu, eta sagar asko galdu ziren".

Sagardoaren hartzidura, berri, "oso ondo" joan da, eta sagar ardoak iaz baino **alkohol gehiago** dauka, %6,5 inguru. "Udan eguraldi lehorra egin zuenez, azukre gehiago eduki dute sagarrek, eta, ondorioz, alkohol kantitate handiagoa dute. Gorputz aldetik, oso ondo daude, eta sagardo gozoa aterata da".

Produktu berriak ekoizten. Intxaurreagak sagar zukuak ekoizten hasi direla aitortu du gaur. Izan ere, Bizkaiko sagarrak bultzatzea eta ekoiztutako sagarrek in produktu berriak ekoiztea dira beraien asmoetako batzuk. "Bide berriak ere landu behar ditugu, gure helburua inguruetako baserrietako ekoizpena bultzatzea delako".

Peli Manterola Eusko Jaurilaritzako Kalitatearen eta Elikagaien Industrien zuzendariak ekoizpen berriak bultzatu egin behar direla dio: "Merkatuak gehiago eskatzen dituen produktuak dira sagardoak edota sagar zukuak, eta erronka horiek merkatutzeko orduan Jaurilaritzaren laguntza izango duzue".

Eusko Jaurilaritzaren erronka nagusiak bertoko ekoizleen produktuen aldeko apustua egitea eta produktuen kalitatea bermatzea direla adierazi du: "Bertako sagardoa bertako sagardoagaz egitea ez da gauza berri bat, eta bere garaian horren aldeko apustua egin zutenak zoriondu gura ditugu".



Onintza Enbeita enbaxadore izatearen garrantzia ere azpimarratu du ekitaldian Manterolak: "Hito bat izan da bertsolaritzan Enbeitak lortu duena, eta gaur Bizkaiko sagardoaren enbaxadorea izatea ere, beste lorpen baten moduan definituko nuke".

Maite Peñakoba Bizkaiko Foru Aldundiko Nekazaritza zuzendari nagusiak aurtengo sagardoaren kalitatea eta sagardogileen **lana eskertu** ditu. Aurtun **100.000 euroko diru laguntza** eman dietela azaldu du, eta berdin jarraitzeko asmoa daukatela adierazi du aldundiko nekazaritza zuzendariak: "Ustiategi eta

sagardogileei laguntza eta babesa ematen jarraitu gura dugu; sektorea bultzatzen eta gure sagarra ekoizten jarraitzea da gure helburua".

(<https://busturialdea.hitza.eus/>)



Busturialdeko Hitza Comment Policy

HITZAK ez du irainik edo antzerako hitzik jasotzen duen iruzkinik onartuko.



i8295_fc

BUSTURIALDEA

Gomendatu Tweet Partekatu Onenetik hasita ▾

Hasi eztabaida...

Izena _____

(https://farm5.staticflickr.com/4896/3190800489_5_c.jpg) Egur erretzuzina.

Harpidetu Gehitu Disqus Gehituna Gehitu DisqusGehitu Disqus Privacy Policy Erabatasun politika Erabatasuna

LOGOTIPOAK | ILUSTRAZIOAK | BISITA-TXARTELAK | KARTELAK | POSTALAK | ESKUORRIAK

11barri

DISEINUA KOMUNIKAZIOA EUSKARAZ
607 490 166 / 94-694 44 36 info@11barri.eus
11barri.eus

tftp://lea-tibaletamutrika.hitza.eus/site/files/2019/01/11barri.jp

Agenda						
« () Otsaila 2019 ▼ » ())						
AL.	AR.	AZ.	OG.	OL.	LR.	IG.
				1	2	3
				((/agend(/agend(/agendeguna=eguna=eguna=: 2-1) 2-2) 2-3)		
4	5	6	7	8	9	10
((/agendeguna= 2-4))				((/agend(/agend(/agendeguna=eguna=eguna=: 2-8) 2-9) 2-10)		
11	12	13	14	15	16	17
		((/agend(/agend(/agend(/agendeguna=eguna=eguna=eguna=: 2-13) 2-14) 2-15) 2-16) 2-17)				

☎ 94-627 10 85 (tel:94-6271085)

✉ busturaldea@hitza.eus (mailto:busturaldea@hitza.eus)

📍 Bekoibarra, San Miguel eraikina, 35, 1. solairua. 48300, Gernika-Lumo
(https://www.google.es/maps/search/Bekoibarra%2C+San+Miguel+eraikina%2C+35%2C+1.+solairua.+48300%2C+Gernika-Lumo)

Nor gara (https://busturaldea.hitza.eus/hitzakide/nor-gara/)

f (https://www.facebook.com/busturaldeahitza/) t (https://twitter.com/busturaldeahitza) i (https://www.instagram.com/busturaldeahitza/) s (https://soundcloud.com/busturaldeahitza) v (https://www.youtube.com/channel/UCnHwBseVWvRQmDgkNtTqYdE) u (https://www.linkedin.com/company/busturaldea-hitza-euskal-kultura-fundazioa-saiola-hitsa/) k (https://www.kontakoa.net/user/deazalea-usafiede) Hitzia-1063788237434140/)

Cookieak (https://busturaldea.hitza.eus(cookieak/)
Pribatutasun politika (https://busturaldea.hitza.eus/pribatutasun-politika/)



(<https://busturialdea.hitza.eus/>)



(<http://www.euskadi.eus/hasiera/>)



(/hitzakide)

(<http://web.bizkaia.eus/eu/>)